

Generoak dantzan

Liburu bat ekarri dit lagunak, interesgarri izango zitzaidalakoan. Baia bai! Eta hasteko artikulua batek begia jo dit.

Mutil-dantzak badira Baztanen, publikoak, edozein herritar sar baitaiteke borobilean. Edozein? Izenak dioenez, mutilentzako alegrantziak ziren, nahiz gure garaian adin guztietako gizonezkoek zuten dantzatzeko: bakarrik emazteak ziren haiekin dantzatuak. Eta azken urte hauetan haiek ere haizu badira dantzatzera, hara heltzea ez da dantzaldi airoso bat izan, borroka aski latza baizik, protagonistek dioskuten.

Protagonistek egiten baitute prozesuaren kronika, plazara ateratzeko lanean aritu diren ber-berek. Batzuek, beti gustuko izan duten dantzara sartu ondoan, kontzientzia feminista hartu zuten, eta denak helburu amankomunean bildu ziren. Alde autobiografikoak indarra ematen dio idazkiari, eta irakurleari plazara. Irakaspenez betea da, bestalde, argiki azaltzen du bazterketa eraikitze eta mantentze mekanismoak nola ari ziren. Besteak beste:

Nola mutil ez diren gizon ezkonduak eta mutikoak dantzatzera onartua izan ziren eta, aldiz, jasanezinezko aldaketa zen emazteek dantzatzea. Sexu/generoa zen beraz, bazterketako funtsa. Gi-



Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

Batzuek, beti gustuko izan duten dantzara sartu ondoan, kontzientzia feminista hartu zuten, eta denak helburu amankomunean bildu ziren

zontentzat aldatzen ahal zen tradizioa, baina tradizio beraren errespetua argudiatu zuten emazteen aurka: gezurra frogatua da.

Nola hamarkadetan emakumeek dantzatzeko zuten herri batean dantzak kendu zituzten, bi gizonek, desadostasuna adierazi zuten. Sexu-berdintasunerako aurrerapenak atzera botatzeko,

gizon bik herritar gehienek baino indar handiago izan dezakete.

Nola anomalia horietan hautematen den Elizondoko eragina: hiriburuan kokatu da baztertzailen bunkerra eta, ekitaldi ofizialeko dantzak parekideak direnean, elizaren eremu pribatuan egiten dute oraino beren ekitaldi soilki maskulinoak.

Nola dantza parekideak galarazteko ahaleginetan dihardutenekin bat egin duten botere atzerakoiek –linguistiko (erdara), erlijioso, politiko, sozial, ekonomikoek–.

Plazara Dantzara herri-ekimenak lortu duen aitzinamendua iraunkorra izango dela itxaroteko arrazoiak ez dira falta. Erne egotekoak ere ez. Garbiñe Elizegi Baztango auzapeza ausartu zenean dantza-borobilean sartzera, zer zuen jasan irakur daiteke astekari honetan berean [Garbiñe Elizegiri elkarriketa 2549. zenbakian].

Erreseina honetan baino gauza gehiago eta hobeto kontatuak dira Baztango bost emaztek atundu artikuluan:

“Baztango mutil-dantzen analisisa eta prozesu kolektibo feminista”, hoguei bat lanek osatu liburu gogoangarri batean, Miren Guilló Arakistainek koordinatua, *Festak, genero-harremanak eta feminismoa*, UEU, 2016. ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:
www.argia.eus/buletinak

ARGIA